

Beste batasuna →**Ramon Tremosa** ► Europako bozetarako CiUko hautagaia

Europako Legebiltzarrean toki bat egitea Kataluniarentzat onuragarria dela uste du Tremosak, hala Madrilekiko menpekotasuna murrizteko aukera izango lukeelako Generalitateak.

«ERCk Generalitatea PSCri oparitu dio, baina trukean ez du ezer jaso»

Arantxa Elizegi

CiU Convergencia i Unioi hautagai independente bat aukeratu du Europako Legebiltzarreko bozetan alderdia ordezkatzeko: Ramon Tremosa (Bartzelona, 1965). Subiranista da Tremosa, eta *Ekonomialariak ezetzaren alde* egitasmoko kideetako bat ere bai. Estatutua eta egungo finantzaketa sistema «hiruko gobernuaren porrotik handiena» izan dela defendatu izan du hasieratik. Horiak hala, uste du Europako Parlamentuan toki bat lortuz gero egoera aldatzeko aukera izango dela.

Zergatik militante independentea izanik aukeratu duzu Europako Legebiltzarreko bozetzara aurkeztea CiUren izenean?

Kataluniarentzat aukera handia delako. Estatutua eta finantzaketa sistema hiruko gobernuaren porrota izan dira, porrot izugarria. Aro berri bat hasi behar dugu, eta nik neure burua eskaini dut parte-hartze politikorako, modu berriak ekarriko dituen aro horretarako.

Boto subiranista erakartzeko asmoz izendatu zaitu CiUk hautagai?

Sozialisten politikak kalte handia egin die bai ERC Esquerra Republicana de Catalunyari, eta baita CiU Convergencia i Uniori ere, biek ala biek milaka boto galdu zituzten azken hauteskundeetan. Ondorioz, ulergarria da subiranistak erakarri nahi izatea haiengandik gertuago dagoen pertsona bat aukeratzeko Europako hauteskundeetarako. Orain arte, Ignasi Guardans izan da CiUko ordezkari Bruselan, baina hura urrunago dago independentis-



JORDI PLAY

tengandik, horregatik eraberritzea erabaki du alderdiak. Eta niretzat ere aukera bikaina da Europako Legebiltzarrean egotea. Erabaki nezakeen nire kristalezko dorrean jarraitzea, baina bi urtez hara joatea aukeratu dut, uste dudalako herrialdearentzat onuragarria izan daitekeela.

Onuragarria, zergatik?

Orain trenbide sarearen inguruko eztabaida pil-pilean dago European, eta hori Kataluniara ekartzea aurrerapauso izugarria litzateke guretzat. Adibide bat jarriko dizut: Ford auto enpresa oso indartsua da Europa osoan, eta ordezkariak du gure herrialdean, baina Katalunian autoak

kamioien bidez banatzen dira, eta hori kostu handia da Fordentzat, horregatik edozein egunetan erabaki dezake azpiegitura egokiak dituen hiri batera joatea, milaka lanpostu berekin eramanez.

Uste duzu Madrilek Estatutuari murrizketak egin zizkionean Generalitateak atzera bota behar zuela eta hasierako testua defendatu?

Alderdi Sozialista izan zen hor huts egin zuena. Erantzule nagusia nor den galdetzen badidazu, alderdi sozialista dela erantzungo nizuke. Hura da bost urte daramatzana Generalitateko buruzagitzan. Zergatik ez zen Estatutua hiru astean egin? Nola aukera-

tzen zituzten Erromako aita santuak XVI. mendean? Gotzainak hiru astez sartzen zituzten monasterio batean, eta esaten zieten handik ez zirela irtengo aita santu berria aukeratu arte. Hori bera egin behar genuen guk. Nork luzatu du prozesu guztia? Alderdi Sozialistak. Nork bota dio ura ardoari bost urtez Madrilen eta Bartzelonan? Alderdi Sozialistak. Beraz, nire ustez, porrot izugarria izan da hau. ERC Esquerra Republicana de Catalunyaen erantzukizuna izan da neurri batean, Generalitateko presidentetza oparitu diolako PSCri Katalunian, eta horrekin euro bakar bat edo eskumen bat gehiago ere lortu ez duelako, trukean ezer jaso ez duelako. Saiatu dira, eta huts egin dute. Eta ahaleginak huts egiten duela ikusi ondoren, zuzenketa egitea da zentzuzkoena.

Zeintzuk izango dira zure helburuak Europako Legebiltzarrean eserleku bat lortuz gero?

Beno, lehenik eta behin, Garraio Batzordean emango nuke izena. Hala ere, oraindik asko geratzen da horretarako, eta ikusteko dago EAJk ere CiUrekin bat egiten duen; hala balitz Euskadirentzat onuragarri izango diren proiektuak ere kontuan hartu beharko genituzke Legebiltzarrean lan egiterakoan. Garrantzitsua da Bruselan egotea, batez ere ekonomia aldetik. Egun han eztabaidatzen ari diren proiektuak aberasgarriak dira Kataluniarentzat, horregatik Madrilek ez du nahi gu han egoterik, nahiago du haren menpe jarraitzea. Horregatik aurkeztu dut nire hautagaitza, menpekotasun hori amaitzea delako nire asmoa.

→ **Laburrak****Etorkinak hiltzen uztea egotzi diote Thaiandiari**

BANGKOK ► Myanmar tik Thailandiara zihozten ehun etorkin inguru Indonesiatik gertu atxilotu, motorrik gabeko txalupa batean sartu eta itsasoan hiltzen uztea leporatu diote Thailandiako Gobernuari gobernuak kanpoko hainbat erakundek. Txalupan zihozten eta bizirik ateratzea lortu zuten bi etorkinen lekukotzak entzun ondoren egin dute salaketa.

42.600 dira Zimbabwen koleraz gaixotutakoak

HARARE ► Zimbabwen egoera larriagoa da egunetik egunera. Jada 2.225 dira koleraz jota hildakoak, eta 42.600 kutsatutakoak, NBEko ordezkariaren arabera. Egutero 1.550 kasu berri agertzen dira. Hiltze tasa %1etik %5era igo dela ohartarazi du NBEk.

Polizia eta manifestarien arteko liskarrak Lituania

VILNIUS ► Gutxienez hamabost lagun, tartean lau polizia, zauritu ziren atzo segurtasun indarren eta manifestarien arteko liskarretan. Legebiltzarrean aurrean bildu ziren 7.000 bat manifestari, krisi ekonomikoari aurre egiteko Gobernuaren erreformen aurka protestatzeko. Polizia horiek indarrez sakanatzen saiatu zen, eta orduan piztu ziren liskarrak.

Galdeketa otsailaren 15ean egingo dute Venezuelan

CARACAS ► Bozetzara aurkeztu ahal izateko muga indargabetu edo ez erabakitzeko erreferenduma otsailaren 15ean egingo dute Venezuelan, hala iragarri zuen atzo Hauteskunde Batzorde Nazionalak. Baiezkoak irabaziz gero, egun bigarren agintaldia betetzen ari diren buruzagiek, Hugo Chavez presidentea kasu, beste behin aurkeztu ahal izango dute hauteskundeetara.

Busturialdeko hitzak KAZETARIA behar du:**Eskaintzen da:**

- Etorkezuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.

Eskatzen da:

- Kazetaritza, Euskal Filologian edo Historian lizentziaduna edo ikasle izatea.

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea. - Hizkuntzak jakitea.
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea. - Eskualdea ondo ezagutzea.
- Autoa izatea. - Diseinu lanak egiten jakitea.

Bidali zure curriculuma helbide elektroniko honetara:
busturialdea@busturialdeko hitza.info

Tolosaldeko komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala,...), hainbat eragileekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabilta.

Eskatzen da:

• Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
• Euskara maila ona.
• Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
• Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculuma bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, urtarrilaren 20a baino lehen.

JARDUNA S.L. Giza Baliabideak Saila - Martin Ugalde Kultur parkea - 20140 Andoain
Erreferentzia: THHK209

*Muskizko Kontzejuak
salgai jarriko du
bere jabetzako etxe bat,
enkante publiko bitartez.*

Nafarroako kontratazioen atarian eta Imozko udaletxean dago baldintza orria, interesa dutenentzat eskuragarri. Eskaintzak egiteko epea 2009ko otsailaren 6an amaituko da, eta 2009ko otsailaren 18an egingo da enkantea, 14:00etan, Imozko udaletxean.

Alkatea
Patxi Etxarri
2009ko urtarrilaren 17an